

8korrika

Ibilbide erdia egina du dagoeneko Korrikak

Emana du jada Korrika 8k eman beharrekoaren erdia. Atzo bete zuen errepide gainean hasi zeneko bostgarren eguna eta baita egin beharreko 2.120 kilometroen erdia ere. Martxa onean egin du orain arteko bidea, airean konpondu diren atzerapen txiki batzuk gora-behera. Nafarroako hegoaldean ibili zen atzo egun osoz eta Erribera aldeko euskaltzaleek ere ez zioten muzinik egin Korrika 8ri.

IDURRE ESKISABEL / DONOSTIA

Faltzestik Mañerurako bide luzea egin zuen atzo, bostgarren egunez Korrika 8k. Nafarroako hegoaldea, beraz, alderik alde iragana du dagoeneko lasterketa berezi honek. Horrezaz gain, ibilbidearen zati handi bat ere bete du dagoeneko, 1.026 kilometroa bete baitu bart gauerdian Mañerun, Iruñetik Bilbora bitartean egingo dituen 2.120en erdia gutxi gora-behera.

Martxa onean bete zuen atzo-ko eguna ere. Herri txiki ugaritan barna ibili arren, giroak ez zuen behera egin. «Normala den bezala herri txikietan jende gutxiagok hartzen du parte, baina lasterka egiten dutenek benetako borondatez egiten dute eta horrek gi-

roari asko laguntzen dio», azaldu zuten lasterketa gau eta egun zaintzen duten Korrika 8ren arduradunek.

Euren txanda gauez gertatzen den herrietan biltzen zaio Korrikari jende gutxien, baina hauetan ere ez da hutsunerik gertatu orain artekoan behintzat. «Izugarria da Nafarroako herri txiki hauetan egiten ari diren ahalegina, Korrika gauez iragan arren beti baitago jende mordoska bat lasterketa laguntzeko prest», azpimarratu dute arduradunek. «Ordu biak bitarte horretan gainera, ehunen bat lagun biltzen dira herri gehienetan nahiz eta korrika ez egin gutxienik txalotzera. Hurrengo egunean lanera joan behar dutela kontuan izanda, guztiz eskergarria da ahalegin hori».

Tafalla eta Tuterara dira atzo Korrika 8k zeharkatu zituen herri handienak. Bi herrietan, Korrikan jende askok parte hartzeaz gain, beste hainbat ekitaldi ere antolatuak zituzten AEK-k antolatutako lasterketari ongietorria emateko eta jai giro bizi-bizia sumatzen zen sartu orduko.

Aurreko egunetan bezalaxe, hainbat udal, eskola eta elkarte bat egin zuten Korrikarekin, kilometroak erosiz. Zentroniko eta Kaparrosoko udalak izan ziren esate baterako atzo beste askoaren artean lekukoa hartu zutenetakoa. Alderdi, sindikatu, eskola, kirol eta dantza taldeak ere ugariak izan ziren. Renfeko lan-



Bizkaira Gipuzkoan barrena

Nafarroa atzera utzita, Gipuzkoan ibili ondoren Bizkairainoko bidea egingo du gaur Korrika 8k. Sakana zeharkatuz sartuko da Gipuzkoara, Goieritik hain zuzen. Baina ez luzerako, Urolan gora joanda, Bizkaian Elorriora sartuko baita Elgetatik. Dena den, arratsaldean berriro Gipuzkoan sartuko da eta Eibar inguruetan kilometro batzuk egin ondoren azkenik Bizkaira itzuliko da gaurko eguna Ondarroan bukatzeko. Jende ezagun ugari hartuko du lekukoa gaur: Pili Astiz Olaztiko Lukin anaia intsumisoen amak, Xanti Auzmendi jostunak, Mendizabal eta Murua bertsolariek, Joxe Felipe Auzmendi ETBko aurkezleak, Jokin Mujika txirrindulariak eta Salba Iriarte Realeko bigarren entrenatzaileak besteak beste.

gileek eraman zuten Kastejonek lekukoa eta Reina Sofia eritxeko Ablitastik Tuterara bitartean. Santi Kiroga intsumisoak egin zuen Tuteratik Arketasera-ko bidea, HBren izenean lekukoa eramanez.

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK - ESKULANAK

Andra Mari, 9

681 50 17

DURANGO

TXALAPARTA

taberna
Euskal
giroa
Ermuan

Erdiko kalea, 13
Tel.: (943) 17 50 82
ERMUA

Maite

TABERNA

Goienkale
Tel.: 681 45 28
DURANGO

ERTZ

TABERNA

Zubiaurre, 1
Tel.: (943) 17.18.51
ERMUA

KIKILU

Hanburgesia
Gutiz ekipatua eta
funtzionamenduan,
traspasatu nahi dut
DURANGOKO
Alde Zaharrean

103 m2

681.03.54

Astelehenetan ezik (Luis Angel)

GURE TOKI

TABERNA

Goienkale, 2
Tel.: 620.08.85
DURANGO

LIBURUAK ETA DISKOAK

hita

Artekale 14 DURANGO
Tel. 681 07 76

HERRIKOI


LIBURUDENDA
Aranzamendi kalea
Tel. 682 74 29
ZALDIBAR



EUSKALTERM

Datu-banku terminologikoa

Ibertex / Spritel



UZEI
Aldapeta, 20
20009 DONOSTIA
Tel. 943 - 47 33 77
Fax-a 943 - 45 79 44

Kontsulta telematikoa

500.000 sarrera lau hizkuntzatan

Hiztegiak kontsultatzeko bide azkarrena